

Sabino Arana 8
48013 Bilbao
beaz@bizkaia.eus
T. 944 395 622
beaz.bizkaia.eus



BEAZ, SAU

Politika Integratua

2025eko abenduaren 5ean





BEAZ Bizkaiko erreferentziazko entitatea da lurraldeko enpresa-sarean enpresa berritzaileak sortzeko eta berrikuntza sustatzeko. Era berean, balio ekonomiko eta soziala sortzen duten zerbitzu bikain eta jasangarriak eskaintzeko konpromisoa dauka.

Zuzendaritzaren helburua da interes-taldeen erakundea aitortzea gizartearekiko arduratsua den, ingurumenarekin errespetutsua den, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin konprometitu dagoen enpresa gisa, zeina bere langileen osasunari eta xede duen gizarte osoaren ongizateari adi dagoen. Horrez guztiaz gain, izenpetutako legezko eta borondatezko baldintzak betetzen ditu eta etengabeko hobekuntzan oinarritutako lan-sistema mantentzen du, enpresa bikaintasunaren markoan gure helburuak lortu ahal izateko.

Bere funtzioak garatzeko eta ekintzen etengabeko hobekuntza sustatzeko helburuarekin, BEAZek kudeaketa-sistema dokumentatua du, honako sistema hauen baldintzen arabera:

- Kalitatearen kudeaketa (UNE-EN ISO 9001:2015)
- Ingurumenaren kudeaketa (UNE-EN ISO 14001:2015)
- Webgune irisgarrien kudeaketa (UNE 301549:2022)
- Laneko arriskuen prebentzioaren kudeaketa
- Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren kudeaketa
- Complianceren kudeaketa
- Zibersegurtasunaren kudeaketa
- Konfidentziasunaren kudeaketa eta datu pertso-nalen babes
- Eraitzen babesaren eta ustiapenaren kudeaketa

Kalitatearekiko konpromisoa

Kalitatearekin dugun konpromisoak BEAZek zerbitzu bikainak eskaini nahi dituela erakusten du, lankidetzan ari garen pertsonen eta erakundeen konfiantza eta balioa ematen dietenak.



Kalitatea Bizkaiko berrikuntza, jasagarritasuna eta garapen ekonomiko eta soziala bultzatzen dituen zutabe estrategikotzat jotzen dugu.

Politika honek gure erabakiak gidatzen ditu eta kalitate-helburuak ezartzeko eta berrikusteko esparrua eskaintzen du, erakundearen estrategiarekiko eta xedearekiko koherenteak direla ziurtatuz.

Talde osoan erantzukizunean, parte-hartzean, etengabeko ikaskuntzan eta aukera-berdintasunean oinarritutako kultura sustatzen dugu.

Kalitatea kudeatzeko sistemaren eraginkortasuna etengabe hobetzeko konpromisoa hartzen dugu, gure bezeroen gogobetetasuna eta gure prozesuen bikaintasuna bermatuz.

Berrikuntzarekiko konpromisoa

Berrikuntzarekin dugun konpromisoa Bizkaiko startup eta ETEen gaitasun berritzailea indartzera bideratuta dago, eta, horretarako, enpresa horien hazkundera eta lehiakortasuna bultzatzen duten eta lurraldearen garapen jasagarrian laguntzen duten emaitzak sortzen ditugu.

- Gure ardatza bezeroak dira: berrikuntza laguntzen ditu-gun enpresen beharretan eta igurikimenean zentratzen dugu, soluzio pertsonalizatuak, malguak eta inpaktu handikoak eskainiz.
- Lankidetzak: lankidetzak publiko-pribatua sustatzen dugu, pertsonen eta erakunde enpresarial, instituzional eta akademikoen arteko aliantzak bideratuz ekosistema berritzaile eta kolaboratiboa sortzeko.
- Berrikuntza-kultura: sormena, ekimena eta ideia berrien esplorazioa sustatzen dituen ingurunea garatzen dugu, berdintasun-baldintzetan parte-hartze aktiboa landuz eta ezagutza-trukea sustatuz.
- Hobekuntza iraunkorra: etengabe ebaluatzen dugu gure ekintzen eraginkortasuna, estrategiak eta zerbitzuak egokituz haien garrantzia, efizientzia eta balioa ziurta-tzeko.



Ingurumenarekiko konpromisoa

Ingurumena babesteko dugun konpromisoak kudeaketa arduratsu eta jasangarria dakar, honako printzipio hauetan oinarrituta:

- Baliabideen erabilera jasangarria.
- Hondakinen murrizketa eta kudeaketa arduratsua, berrerabilera eta birziklapena sustatuz.
- Gure jardueretatik eratorritako kutsadura prebenitzea eta minimizatzea.
- Gure enpresa eta erakunde laguntzaileei zuzendutako ingurumen-sentsibilizazioa.
- Erronka Garbia - Ihoberen Ekitaldi Iraunkorra metodologia ezartzea, ekitaldien ingurumen-inpaktua murrizten duten praktikak aintzatesteko eta sustatzeko, bertaratutako pertsonak eta BEAZen erakunde laguntzaileak inplikatur.

Politika hau bat dator enpresaren kultura eta balioekin eta antolakundean komunikatu, ulertu, aplikatu eta berrikusi eta noizetik noizera gaurkotu behar da.

Ezartzea zuzendaritzaren lehentasunezko helburua eta BEAZko langile guztien erantzukizuna da.

Zuzendaritza Nagusiak onartua